



M A R I A N A
TRAVACIO

BARKAMENA
EXISTITUKO BALITZ BEZALA

ITZULPENA: FERNANDO REY

n a r r a t i b a •

erein

BARKAMENA EXISTITUKO BALITZ BEZALA

n a r r a t i b a • 150

erein

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2024ko otsailean

Jatorrizko izenburua:
Como si existiese el perdón

Azaleko irudia:
Iosune Sarasate Azkona

Maketazioa:
Erein

© Mariana Travacio, 2016

© Itzulpenarena: Fernando Rey, 2024

© Edizio honena EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-883-6

L.G.: D 104-2024

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107 - 20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 - 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Mariana Travacio

BARKAMENA EXISTITUKO
BALITZ BEZALA

Itzulpena
Fernando Rey



Han, bizi ginen tokian, iparrak jotzen zuen. Haize beroa izaten zen beti: setiatu egiten gintuen pixkanaka, eta, azkenean, txakur gose baten modura gelditzen zen gure artean. Ingu-ratuak gintuenean, siesta ezin luzeagoak egiten genituen. Esnatzen ginenerako, iluntzen hasia egoten zen, eta lurrari idor usaina aterarazten zion dirdaia izaten zen zeruan.

Ipar-haizearen bolada haietako batean, Loprete agertu zen gurean. Kopetilun ailegatu zen, galduxea, Pepaz galdeka. Presarik gabe mintzo zen; deblauki, ordea. Peparen bila nabil, esan zuen guk Tanorenean ikusi eta berehala. Ledor esan zuen, ahoa hutsik izan eta hori esanda bete bali-tzaio bezala. Harri eta zur begiratu genion, txunditu samar-turik halako itxura izateagatik arratsalde kiskalgarri hartan, ematen baitzuen arratsalde hartan inguratzen gintuen hauts-lainoak gorpuztu zuela gizon hura tupustean Pepaz galdetzeko.

Ezagutzen genuen Pepa bakarra Antonio zaharraren alaba zen, eta beste muturrean bizi ziren. Antonio zurgina

zen. Antoniorengatik izan balitz, ez genuen izanen non jokatu kartetan, non lo egin. Lopretek begietara begiratuta, Tanok ez zuen begirada baztertu, eta esan zion: zertarako bilatzen duzu, aixkide. Eta Lopretek –une hartan figura trinko bat besterik ez zen, lainotik atera berria– duda-mudatan ibili gabe erantzun zuen: begira, gizona, galdu zaidalako nabil haren bila. Eta Tanok, erne ote genbiltzan ikusteko guri begiratu ondoren, esan zion: tira, eseri hemen gurekin, edan ginebra pixka bat, eta kontaiguzu nolatan galdu zaizun.

Horrela ezagutu genuen Loprete. Eta galdu zitzaion Pepa ez zen gure Pepa. Hori hasieratik susmatu genuen. Lopretek arrats hartan bost ginebra edan zituen iluntzen ari zuen bitartean. Eta Pepa ez zitzaion galdu. Ihes egin zion.

Tanok lagundu nahi izan zion: geldi zaitez gurekin. Bero hauek apaltzen direnean, denak aterako gara haren bila. Baina Lopretek ez zuen nahi: ezin dut itxoin. Hola gelditzen banaiz esperoan, betiko galduko dut Pepa. Eta Tanok ezetz: basamortu hutsa da hau, aixkide. Lasaitu zaitez. Joanen gara. Eta ez dakit zer zela-eta, ginebragatik edo Tanok esan zuen zerbaitengatik, Lopretek labana atera zuen zorrotik guk zutitzeko aukera izan baino lehenago. Lepoa moztu nahi izan zion Tanori, eta istilu itsusia sortu zen. Bero sapak aldarte txarra pizten baitu: han ipar-haizeak halako gauzak ekartzen zizkigun. Lopretek larri zaurituta bukatu zuen, eta guk hura sendatzeko modurik ez izaki eskura: harentzako erremediorik ez. Gau guztia eman zuen

azken hatsetan. Eguna argitu baino lehentxeago lurperatu
genuen. Juanchok egin zuen zuloa lurrean. Nik lanparari
eusten nion. Eta Tano erne zegoen gorpua beste suminal-
diren batek hartzen ote zuen.

Esan genionean gure Pepa haragi gazteko neskatxa bat zela, begi-beltza, zurginaren alaba, Lopretek amorruzko irri-algara bat egin zuen, gerora ere tarteka-marteka entzuten genuena oroitzapena pizten zitzaigunean.

Tanok jakin nahi izan zuen Loprete bilatzen ari zen Pepa hura emaztea ote zuen. Pepa zure emaztea da?, galdetu zion. Lopretek bigarren ginebra bukatu, eta hagitz kontu serioa balitz bezala erantzun zion: ez dut sekula andre baten premiarik izan.

Bere soroez hizketan hasi zitzaigun. Soro handiak, zioen, eta euriek larreak eta belarra hazten laguntzen omen zuten. Sinesgogor geunden hari begira, arrats hartan, ia iluntzean, hirugarren ginebra basokada irentsi zuenean. Haizeak hauts pixka bat ekarri zionean biriketara, basoa mahai gainean jarri behar izan zuen gorputzari eztul egiten uzteko. Ez zegoen ohitua lur lehorrera. Eta nabari zitzaion.

Han euria egiten du, esaten zigun, eta lurra lurrari itsatsia gelditzen da. Ez dago lurra altxarazten duen haizerik.

Apiril guztia eta azaro guztia euri-sasoia da. Gu liluraturik geunden hari adi, asmatu nahian non ote zegoen halako lur eskuzabala, hainbeste belar ematen zuena. Gurea elkorra zen, zekena, ez zuen inoiz ezer askorik ematen, ezta egin ohi zituen euri eskasak izaten genituenean ere.

Hasieran, lurra jotzeko gogoa ematen zigun, han, kartetan aritzen ginen tokian, lur eman genion tokian. Esna zedin jo nahi genuen lurra. Egun haietan berehalaxe etortzen zitzaigun oroitzapena. Ez genuen hartaz hitz egiten, baina denok genekien hala zela. Lehenago bezala elkartzen ginen ginebra edatera, baina begiradak alde egiten zion Tanori, eta niri ere bai, eta Juanchori ere bai, eta denok ongi genekien nora zihoakigun. Lopreteren sabel irekira joaten zitzaigun, Tanoren eskuetara, haiekin tripak tapatu nahian ibili baitzen, eta Lopreteren odolera, erori ahala gure lur egarrituak irentsi baitzuen, eta Lopreteren gorputz oraindik beroaren gainera palakadaka erortzen ari zen hautsera. Baita Tanoren hitzetara ere, zin eginarazi baitzigun: hau ez da inoiz gertatu.

Loprete lurperatu eta handik bi astera hiru gizon azaldu ziren, zaldiz, Tanorenera. Juancho ez zegoen han: andreak etxera joateko abisua bidalia zion, ume bat izan behar baitzuen. Beraz, Tano eta biok geunden han. Hori gogoan dut, bai. Zaldiak hautsa harrotzen zetozen zerumugan ikusi genituenetik. Zaldien azazkalek lur lehorra jotzean egindako hotsa aditzen zen. Oraindik ere arratsaren argiaren distira ikusten zen ailegatu zirenean. Tano ikusi zutenean, haietako bakar bat jaitsi zen zalditik, denetan altuena. Jaisten ikusi genuenean, gogora etorri zitzaigun Loprete bera zela, berpiztu berria, guk egin geniona zela-eta erreklamatzera etorria. Arratsalde on, esan zuen, nire anaiaren bila nabil. Eta Tanok, lasai, oilo batez hitz egin balio bezala, edo zalditik jaitsi berria zen figura hori Loprete berbera ez balitz bezala, basokada bat ginebra edatera gonbidatu zituen. Eseri, lagunak, edan ditzagun ginebra batzuk ilundu baino lehena. Hala jakin genuen bederatzi senide zirela. Eta haiek hirurak galdu zenaren bila atereak ziren, amak esan baitzien

lasterka ikusi zuela ahuntz baten atzetik eguerdiko eguzkiaren pean eta harrezkeroztik ez zuela berriz ikusia. Ordutik omen zebiltzan haren bila. Eta Tanok, lasai ederrean, esan zien sekula ez genuela guk ikusi halako gizon bat, hain altua, hain meharra, are gutxiago parez pare genuen gizonaren halako antza zuena: José nire anaia bizkia da. Hala deskribatu zigun bilatzen ari ziren gizona. Eta Tano, asaldagaitz, ezezkoan. Eta, nonbait, sinesgarria irudituko zitzaien, ginebra bana edan eta desenkusatu egin baitziren: barka ezazue, baina aurrera jarraitu behar dugu; amak etxera bueltan nahi du anaia.